

EUSKARA KIROLEAN

Futbola euskaraz bizitzeko eskubidea bermatuz, hizkuntzaren osasuna indartu

Milaka dira futbol entrenatzaile titulua lortu duten euskaldunak. Emakumezko zein gizonetzkoak, jokalaria ohiak, kazetariak, JFKZ ikasleak, zaleak... Ezaugarri amankomun bakar batekin: denek ikastaroak erdaraz egin behar izan dituzte.

Anomalia hori egun gutxi barru amaituko da, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Futbol Federazioak elkarlanean sortutako proiektuari esker: euskara UEFAk homologatutako ikastaroak emateko erabiliko den lehen hizkuntza gutxitua bilakatuko da. Era-kunde bien helburu nagusietakoa da euskararen erabilera-ren sustapena, kasu honetan kirolaren bidez. Gasteizko Gobernuaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, izan ere, Kirolean Euskara Sustatzeko Plana (2021-2024) jarri zuen martxan iaz eta, Beñat Larrañagak gogorarazi duenez, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak asmo bera jarri zuen egitasmo nagusien artean 2020an instituziora heltzean eta, beste erabaki batzuen artean, Euskara Batzorde bat sortu zuen.

Larrañaga bera da, federazioaren presidenteorde ez ezik, batzorde horren ardura-duna eta baita orain arteko monokromia linguistikoaren kaltetuetako bat ere. «Nik hiru mailatako ikastaroak egin nituen entrenatzaile eskolan, hirurak gaztelaniaz. Azken maila amaitzean, zuk idatzitako proiektu bat aurkeztu behar duzu. Euskaraz egin ahal izatea eskatu nuen eta ukatu egin zidaten», azaldu du.

 **KIROLA /** Amaia U. Lasagabaster

Futbol entrenatzaileen gehiengo handia euskalduna den arren, hizkuntzaren erabilera izugarri jaisten da entrenamenduetan. Gipuzkoako Futbol Federazioak eta Eusko Jaurlaritzak egoera aldatu nahi dute, besteak beste, UEFA tituluak euskaraz ateratzeko aukera eskaintzen duen proiektuarekin.



Maila ofizialean euskara orain arte existitu ez bada, praktikan ere egoera ez da ona. Aztikerrek 2016an egin-dako azterketaren arabera, «entrenatzaileen %88, tituludunak zein titulugabeak, euskaldunak ziren, baina erabilera %40ra jaisten zen, %50era emakumezkoen kasuan. Euskaraz jakin badakigu, baina ez dugu erabiltzen».

Hainbat faktoretan topa daiteke azalpena. Ohituran, adibidez. Futbolari zela, Larrañagari entrenatzaile gehienek erdaraz egiten zioten. «Eta gero nik neuk askotan errepikatu dut berdina. Inkontzienteki, gaztelaniara jotzen duzu». Horregatik, Entrenatzaile Eskolak emango dituen ikastaroetan, hizkuntza ohiturak lantzeko modulu txiki bat eskainiko dute, Artez enpresaren eskutik. Aurretik ikastaroaren irakasleek ere jaso dute, eta dagoeneko titulua eskuratu duten entrenatzaileek ere aukera izango dute. «Nola eragin ere jakiteko. Zuk euskaraz egin dezakezu, baina agian taldeak ez dizu jarraitzen. Erabilera bultzatzeko baliteke nahikoa ez izatea euskalduna izatearekin, materiala euskaraz edukitzearekin, ikasketak euskaraz egitearekin...», hain handia da ohituraren pisua. Izan ere, ez da alde handiegirik nabaritzen, erabilerari dagokionez, euskaraz bizitzeko eta are gutxiago ikasteko aukera izan ez zuten entrenatzaileen belau-naldien eta normaltasunez bizi izan duten eta ikasketak euskaraz egin dituzten gaur egungoen artean.

Ohiturrekin batera, eta futbolaren egunerokotasuna ez denez entrenamenduetara mugatzen, «iruditeria kolektibo baten falta» litzateke euskararen erabilera txikiaren

arrazoi handienetakoa. «Garai batean, adibidez, futbola de- zente ikusten genuen euska- raz Euskal Telebistan; gaur egun, noizean behin besterik ez. Eta komunikabideen ekar- pena ezinbestekoa da. Komu- nikabideak, erakundeak, klu- bak, sare sozialak, liburuak, entrenamendurako materia- la... Eta erreferenteak izatea, noski. Zentzu horretan, goi mailako euskal taldeek asko lagundu dezakete erreferente- ak sortuz. Zorionez gaur egun, Athleticekoa izan ezik, entre- natzaile euskaldunak dauzka- gu gure punta-puntako taldee- tan, oso konprometituak gainera. Eta hori altxorra da, bertako jokalariekin gertatzen den moduan».

Helburua bikoitza litzateke. Alde batetik, euskaraz bizitze- ko eskubidea bermatu, futbo- laren praktikan ere. Eta beste- tik, hizkuntzaren ezagutza eta, batez ere, erabilera sustatu. Kontuan hartuta EAEko 8 eta 18 urte bitarteko umeen eta gazteen erdiek futbola aukera- tzen dutela kirola egiteko –eta praktikari gehitu beharko li- tzaioke jarraipen maila altua–, argi dago zein garrantzitsua izan daitekeen euskararen sus- tapena eremu zehatz honetan, hizkuntzaren osasun oroko- rraren mesederako.

ENPRESETAN ARRAZAKERIA

Ardura ezin da ume eta gazte- txo horiengan jarri. Baina au- kera duenak, betebehartzat hartu beharko luke. «Guk ho- rrela uste dugu gure kasuan. Federazioan sartzeko hautua egin genuenean, argi genuen txapelketak kudeatzeaz gain, gizartearen eragile aktibo bat izan behar ginela. Federazioak badauka aukera hori eta insti- tuzionalizazioak, federazio ba- tek helburu bat finkatzeak, gi-



Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Federazioko eta klubetako ordezkariak hartu zuten parte Reale Arenan egindako aurkezpenean. Ezkerreko irudian, Beñat Larrañaga, Gipuzkoako Futbol Federazioko presidenteordea eta Euskara Batzordearen arduraaduna. Gipuzkoako Futbol Federazioa, Leo CORREA | AFP

zarteari mezu bat bidaltzen dio. Elkartu ginen guztiok argi genuen parekotasuna, kirol egokitua eta euskara ardatz izan behar zirela», azaldu du Larrañagak.

Hizkuntzaren inguruko plan estrategikoa diseinatu zuten. Epe ertainean klubetara zabal- tzea espero dute, «aholkulari- tza emanez, lagunduz... kluba kontzientziatuta dagoenean errazagoa delako entrenatzaileengan, familiengan kontzientzia hori piztea, betiere zaila dela jakinez, klub gehie-

netan jendea boluntario gisa baitabil». Une honetan, edo- zein kasutan, «barrura begira- tzen ari gara, guk zer egin de- zakegun eta zer behar dugun».

Eta bide horretan egin dute bat Eusko Jaurlaritzaren egi- tasmoeekin, Kultura eta Hiz- kuntza Politika Sailean ere ikusten baitute belaunaldi berriek nekez barneratuko dute- la euskara kirol hizkuntza be- zala, euren erreferenteak izan daitezkeenek ez badute aurre- tik egiten. Honen ondorioz, bost urteko iraupena duen

akordioan arlo desberdinetan garatuko diren ekimenak jaso- tzen dira. Horien artean, en- trenatzaile ikastaroak.

UEFA C eta UEFA B mailak, futbol eskoletan eta behe mai- letan lan egiteko nahikoak di- renak, eskainiko dira euskaraz hasiera batean –gainontzeko- ak, UEFA A, atezainena eta Es- painiako Federazioak Madri- len besterik eskaintzen ez duen UEFA Pro izango lirate- ke–. UEFA C da maila baxuena, eta ikastaroa online egiten da praktikaldi batekin eta he- mendik aurrera, dokumenta- zioa euskaraz eta gaztelaniaz bidaliko da. UEFA B titulurako ikastaroak, berriz, online eta presentzialak dira eta hurren- goa, martxoaren 14an hasiko dena eta izen-emateko epea zabalik duena, euskaraz eskai- niko da lehen aldiz. Federazio- aren hasierako asmoa, ikasta- roen erdia (6-7 urtean) euskaraz eskaintzea da.

EAEko 8 eta 18 urte bitarteko umeen eta gazteen erdiek futbola aukeratzen dute kirola egiteko. Euskara eremu honetan sustatzeak hizkuntzaren osasunari mesede egingo dio

Ohituraren pisua eta iruditeria kolektibo baten falta dira euskararen erabilera urriaren arrazoi nagusietakoak, Beñat Larrañaga Gipuzkoako Futbol Federazioko presidenteordearen ustetan